ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

# 2023ko URTARRILAREN 18an EGINIKO EZ OHIKO BILKURAREN AKTA

Asteasuko Udaletxeko Pleno Aretoan, 2023ko urtarrilaren 18an, arratsaldeko 20.10etan, Maria Pilar Legarra Cortajarena Alkate anderearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren Zinegotziak bildu ziren:

ALKATE ANDREA: Maria Pilar Legarra Cortajarena (Asteasu Batuz, AB)

ZINEGOTZIAK:
Jose Ramon AYERZA SARASUA (Asteasu Batuz, AB)
Larraitz ALKORTA AIZPURUA (Asteasu Batuz, AB)
Maria Pilar ITURBE URDANGARIN (Asteasu Batuz, AB)
Unai OTEGUI IRAZUSTA (Asteasu Batuz, AB)
Joseba GOMEZ SARASUA (EAJ/PNV)
Luke URIBE-ETXEBARRIA APALATEGUI (EAJ/PNV)

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, Joseba GOMEZ SARASUA (EAJ/PNV) bideokonferentzia bidez bertaratu da, egungo baldintza klimatologikoek eragindako salbuespenezko ezinbesteko egoera bat dela-eta. Egoera horrek alerta laranja du Gipuzkoa barruan elurra dela eta, baita zinegotzi horrek bizi den udalerritik egin behar duen ibilbidean ere. Horretarako, agerian geratzen da zinegotzia bere etxean dagoela, Espainiako lurraldean, eta Udaleko idazkariak nortasuna egiaztatzen duela.

Haien arteko komunikazioa ziurtatu beharko da, denbora errealean, saioan zehar, eta haien izaera publikoa edo sekretua bermatzeko behar diren bitartekoak jarriko dira, kasu bakoitzean legez dagokionaren arabera.

Ezin direla etorri aurretik adierazi dute: Joseba TXAPARTEGI NIEVE (Asteasu Batuz, AB), Aitor USANDIZAGA IZAGIRRE (Asteasu Batuz, AB).

BITARTEKO IDAZKARIA: Jon Gil Beltza.

Alkate andreak, goian adierazitako orduan, irekitzat ematen du Udal Osoko Bilkura:

## GAI ZERRENDA:

### 1. Aurreko Udalbatzarren aktak onartzea:

- **2022.10.25eko Udalbatzarraren akta.**
- **2022.12.26ko Udalbatzarraren akta.**

SINA3df5e812-2d7b-448c-8f8c-bf7185f13683

Lege Zaharren Enparantza, z/g, 20159 ASTEASU (Gipuzkoa) / Tel.: 943 69 19 07 / Fax: 943 69 31 06 / e-mail: udala@asteasu.eus

2. **2023ko Udal aurrekontu Orokorrak: hasierako onespena**

3. **Kontratazioa 2022-07: Pello Errota ikastetxearen inguratzaile termikoa birgaitzea: azken ziurtagiria onartzea eta ordaintzea**

4. **Erregu eta galderak.**

**.../...**

**LEHENENGO PUNTUA**

**Aurreko Udalbatzarren aktak onartzea:**

- **2022.10.25eko Udalbatzarraren akta.**
- **2022.12.26ko Udalbatzarraren akta.**

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 7 (Legarra, Ayerza, Alkorta, Iturbe, Otegui, Gómez, Uribe-Etxebarria)
Kontrako botuak: 0
Abstentzioak: 0

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien ahobatezko onespenarekin, aipatu aktak onartu ditu.

**BIGARREN PUNTUA**

**2023ko Udal aurrekontu Orokorrak: hasierako onespena**

Udaleko aurrekontuaren zirriborroa aurkeztu ondoren, EAJ-PNV Udal Taldeak 2022/12/12an eta ASTEASU BATUZ Udal taldeak 2022/12/14an aurkeztutako idatzien bidez, 2023ko udal aurrekontuetarako proposamenak aurkeztu zituzten; horiek 2022/12/26ko Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazioa Informazio-Batzordean aztertu ziren.

Bi Udal taldeek eginiko proposamenak eztabaidatu ondoren, 2023ko Udal aurrekontuaren proiektua egin da.

SINA3df5e812-2d7b-448c-8f8c-bf7185f13683

2023ko Udal Aurrekontu Orokorraren proiektuarekin batera, Udal Aurrekontuak Gauzatzeko Arauak eta Udaleko plantilla eta Lanpostu zerrenda, eta Asteasuko Udaleko 2021-2023 Diru-Laguntzen Plan Estrategikoaren laugarren aldaketa izapidetuko dira.

Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazio Batzordeak aurretik irizpena eman du.

Batzordeak emandako irizpenetik, ondorengo proposamena eta aldaketa egiten da, espedientean egiaztatu den akatsa zuzentzeko:

- 02 00 643 920 00 01 partida: 13.420,00 €tan finkatzea.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 7 (Legarra, Ayerza, Alkorta, Iturbe, Otegui, Gómez, Uribe-Etxebarria)
Kontrako botuak: 0
Abstentzioak: 0

Beraz, Udalbatzak

ERABAKIA HARTU DU

Lehena. 2023ko Udal Aurrekontu Orokorrak, Udal Aurrekontuak Gauzatzeko Arauak, Udaleko plantilla eta Lanpostu zerrenda, eta Asteasuko Udaleko 2021-2023 Diru-Laguntzen Plan Estrategikoaren laugarren aldaketa hasierako izaeraz onartzea, kapitulukako laburpen honen arabera:

SARREREN EGOERA

| Kapitulua | Izena | Euroak |
|---|---|---|
| 1 | Zuzeneko zergak | 722.600,00 |
| 2 | Zeharkako zergak | 40.000,00 |
| 3 | Tasak eta bestelako sarrerak | 377.050,00 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 1.315.850,00 |
| 5 | Ondare sarrerak | 50,00 |
| 6 | Inbertsio errealak besterenganatzea | 0,00 |
| 7 | Kapital transferentziak | 47.350,00 |
| 8 | Finantza aktiboak | 0,00 |
| 9 | Finantza pasiboak | 0,00 |

**GUZTIRA: 2.502.900,00**

GASTUEN EGOERA

SINA3df5e812-2d7b-448c-8f8c-bf7185f13683

| Kapitulua | Izena | Euroak |
|---|---|---|
| 1 | Langileria gastuak | 717.800,00 |
| 2 | Ond. arrunten eta zerbitzuen gastuak | 1.221.930,00 |
| 3 | Finantza gastuak | 7.450,00 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 322.700,00 |
| 5 | Kreditu globala eta bestelako ustekabeak | 30.000,00 |
| 6 | Inbertsio errealak | 122.770,00 |
| 7 | Kapital transferentziak | 0,00 |
| 8 | Finantza aktiboak | 0,00 |
| 9 | Finantza pasiboak | 80.250,00 |

**GUZTIRA: 2.502.900,00**

Bigarrena. Iragarkia argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaleko web orrian, eta iragarki taulan, jendaurrera azaltzeko hamabost egunetan; epealdi horretan interesatuek aztertu eta udalbatzari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote.

Epealdi horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, 2023ko Udal Aurrekontu Orokorrak, Udal Aurrekontuak Gauzatzeko Arauak, Udaleko plantilla eta Lanpostu zerrenda, eta Asteasuko Udaleko 2021-2023 Diru-Laguntzen Plan Estrategikoaren laugarren aldaketa behin betiko onetsitzat joko da. Bestela, udalbatzak hilabeteko epea izango du erreklamazioak ebazteko.

## HIRUGARREN PUNTUA

**Kontratazioa 2022-07: Pello Errota ikastetxearen inguratzaile termikoa birgaitzea: azken ziurtagiria onartzea eta ordaintzea**

Idazkariak hitza hartu du.

Azaroaren 28ko Toki Erakundeetako Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubidearen Erregelamendua onartzen duen 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikuluan jasotakoarekin bat, Udalbatzarrak proposamena gai-zerrendan txertatzea berretsi behar du.

Alkate andreak hitza hartu du.

Gai-zerrendan jaso den proposamena luzatu dio Udalbatzarrari, aurretik Informazio Batzorden aztertu eta iriztu ez dena. Enpresak azken faktura aurkeztu du, eta obra zuzendaritzak dagokion ziurtagiriak eman ditu. Gauzak horrela, azken zertifikazioa eta

SINA3df5e812-2d7b-448c-8f8c-bf7185f13683

ordainketa izapidetu behar dira; dena den, urtarrilaren 31 da Udalaguntza 2021 diru-laguntza zuritzeko azken egun epea, eta aipatu epearen barruan egin behar diren izapide guztiak kontuan hartuta, ezin izan da aurretik informazio-batzordea egin. Aipatu diru-laguntza zuritu ezean, Udalak kalte ekonomiko handia izango luke.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 7 (Legarra, Ayerza, Alkorta, Iturbe, Otegui, Gómez, Uribe-Etxebarria)
Kontrako botuak: 0
Abstentzioak: 0

Gauzak horrela, Udalbatzarrak proposamena gai-zerrendan txertatzea berretsi du.

Honela dio:

ASTEASUKO PELLO ERROTA IKASTETXEAREN INGURATZAILE TERMIKOA BIRGAITZEKO LANEN KONTRATUAREN AZKEN ZIURTAGIRIA

CERTIFICACIÓN FINAL DEL CONTRATO DE EJECUCIÓN DE OBRAS DE REHABILITACIÓN DE LA ENVOLVENTE TÉRMICA DE PELLO ERROTA IKASTETXEA DE ASTEASU

**I.** Asteasuko Udala «Pello Errota ikastetxea» izeneko eraikinaren titularra da, eta bertan haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako irakaskuntzak ematen dira, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren menpeko ikastetxe gisa.

**I.** El Ayuntamiento de Asteasu es titular del edificio denominado “Pello Errota ikastetxea”, y en el mismo se imparten enseñanzas de educación infantil y educación primaria como centro docente dependiente del Departamento de Educación de Gobierno Vasco.

**II.** Udalbatzak, 2022/04/26ko bilkuran, erabaki hauek hartu zituen:

**II.** El Pleno del Ayuntamiento, en sesión celebrada el 26/04/2022, adoptó los siguientes acuerdos:

“LEHENA. Onartzea Asteasuko Pello Errota Ikastetxearen inguratzaile termikoa birgaitzeko kontratua prozedura ireki sinplifikatuaren bidez esleitzeko kontratazio-espedientea.

“PRIMERO. Aprobar el expediente de contratación para la adjudicación, mediante procedimiento abierto simplificado, de la rehabilitación de la envolvente térmica de Pello Errota Ikastetxea de Asteasu.

BIGARRENA. Onartzea “Asteasuko Pello Errota ikastetxearen inguratzaile

SEGUNDO. Aprobar el “Proyecto de Ejecución Rehabilitación de la envolvente

SINA3df5e812-2d7b-448c-8f8c-bf7185f13683

termikoa birgaitzeko proiektua", Soroa Arquitectos SLPk 2021eko irailean sinatua.

HIRUGARRENA. Onartzea kontratua gauzatzeko erabiliko den Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria.

LAUGARRENA. Kontratu horri dagokion gastua onestea; horren gehienezko prezioa 317.723,66 eurokoa izango da, horietatik kontratuaren printzipalari 262.581,54 euro dagozkio eta 55.142,12 euro %21ko BEZari.

Gastua honako aurrekontu-aplikazioari lotuko zaio: 1 0700.622.320.00.01

BOSGARRENA. Kontratazio jardunbideari hasiera ematea eta dagokion iragarkia argitaratzea Udaleko Kontratatzailearen Profilean, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Kontratatzailearen Profilean integratua".

**III.** Lizitazio-iragarkia ebatzi moduan argitaratu ondoren, eta eskaintza edo proposamenik aurkeztu ez direnez gero, Udalbatzak, 2022/05/20ko bilkuran, erabaki hauek hartu zituen:

*"LEHENA. Hutsik uztea Asteasuko Pello Errota Ikastetxearen inguratzaile termikoa birgaitzeko kontratua prozedura ireki sinplifikatuaren bidez esleitzeko kontratazio-espedientea.*

*BIGARRENA. Kontratu horri dagokion gastua bertan behera uztea; honako aurrekontu-aplikazioari lotuko zaio: 1 0700.622.320.00.01*

térmica de Pello Errota ikastetxea de Asteasu", firmado por Soroa Arquitectos, S.L.P. en septiembre de 2021.

TERCERO. Aprobar el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares que regirá el contrato.

CUARTO. Aprobar el gasto que corresponde a este contrato; el precio máximo será de 317.723,66 euros, ascendiendo el principal del contrato a 262.581,54 euros, y 55.142,12 euros al 21% de IVA aplicable.

Imputar el gasto a la siguiente aplicación presupuestaria: 1 0700.622.320.00.01

QUINTO. Disponer la apertura del procedimiento de contratación, y publicar el correspondiente anuncio en el Perfil municipal de Contratante, integrado en el Perfil de Contratante de Contratación Pública de Euskadi".

**III.** Publicado el anuncio de licitación en la forma dispuesta, y no habiéndose presentado oferta o proposición alguna, el Pleno del Ayuntamiento, en sesión celebrada el 20/05/2022 adoptó el siguiente acuerdo:

"PRIMERO. Declarar desierto el expediente de contratación para la adjudicación, mediante procedimiento abierto simplificado, de la rehabilitación de la envolvente térmica de Pello Errota Ikastetxea de Asteasu.

SEGUNDO. Anular la aprobación del gasto que corresponde a este contrato, imputado a la siguiente aplicación presupuestaria: 1 0700.622.320.00.01

SINA3df5e812-2d7b-448c-8f8c-bf7185f13683

*TERCERO. Kontratazio jardunbideari amaiera ematea eta dagokion iragarkia argitaratzea Udaleko Kontratatzailearen Profilean, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Kontratatzailearen Profilean integratua.”.*

TERCERO. Disponer la terminación del procedimiento de contratación, y publicar el correspondiente anuncio en el Perfil municipal de Contratante, integrado en el Perfil de Contratante de Contratación Pública de Euskadi”.

**IV.** Segidan, Udalbatzarrak, 2022/05/20ko bilkura berean, erabaki hauek hartu zituen:

**IV.** Seguidamente, el Pleno del Ayuntamiento, en la misma sesión celebrada el 20/05/2022, adoptó los siguientes acuerdos:

*“LEHENA. Onartzea Asteasuko Pello Errota Ikastetxearen inguratzaile termikoa birgaitzeko kontratua prozedura ireki sinplifikatuaren bidez esleitzeko kontratazio-espedientea.*

*“PRIMERO. Aprobar el expediente de contratación para la adjudicación, mediante procedimiento abierto simplificado, de la rehabilitación de la envolvente térmica de Pello Errota Ikastetxea de Asteasu.*

*BIGARRENA. Onartzea “Asteasuko Pello Errota ikastetxearen inguratzaile termikoa birgaitzeko proiektua”, Soroa Arquitectos SLPk 2022ko maiatzean sinatua.*

*SEGUNDO. Aprobar el “Proyecto de Ejecución Rehabilitación de la envolvente térmica de Pello Errota ikastetxea de Asteasu”, firmado por Soroa Arquitectos, S.L.P. en mayo de 2022.*

*HIRUGARRENA. Onartzea kontratua gauzatzeko erabiliko den Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria.*

*TERCERO. Aprobar el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares que regirá el contrato.*

*LAUGARRENA. Kontratu horri dagokion gastua onestea; horren gehienezko prezioa 422.130,69 eurokoa izango da, horietatik kontratuaren printzipalari 348.868,34 euro dagozkio eta 73.262,35 euro %21ko BEZari.*

*CUARTO. Aprobar el gasto que corresponde a este contrato; el precio máximo será de 422.130,69 euros, ascendiendo el principal del contrato a 348.868,34 euros, y 73.262,35 euros al 21% de IVA aplicable.*

*Gastua honako aurrekontu-aplikazioari lotuko zaio: 1 0700.622.320.00.01*

*Imputar el gasto a la siguiente aplicación presupuestaria: 1 0700.622.320.00.01*

*BOSGARRENA. Kontratazio jardunbideari hasiera ematea eta dagokion iragarkia argitaratzea Udaleko Kontratatzailearen Profilean, Euskadiko*

*QUINTO. Disponer la apertura del procedimiento de contratación, y publicar el correspondiente anuncio en el Perfil municipal de Contratante, integrado en el*

SINA3df5e812-2d7b-448c-8f8c-bf7185f13683

*Kontratazio Publikoaren Kontratatzailearen Profilean integratua".*

**V.** 2022/05/20an Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman integratua dagoen Asteasuko Udaleko Kontratatzailearen Profilean lizitazio elektronikoaren iragarkia argitaratu ondoren, eta dagozkion izapideak egin ondoren, Udalbatzak, 2022/06/28ko bilkuran, erabaki hauek hartu zituen, besteak beste:

*"LEHENA. ESLEITZEA URBYCOLAN, S.L.-ri Asteasuko Pello Errota Ikastetxearen inguratzaile termikoa birgaitzeko kontratua, baldintza hauetan:*

- *Prezioa: 347.196,20€ nagusia, eta 72.911,20€ %21eko BEZa.*
- *Berme epea handitzea: 36 hilabete.*

*Hori guztia aurkeztutako proposamenarekin bat, eta "Asteasuko Pello Errota ikastetxearen inguratzaile termikoa birgaitzeko proiektua"-ri guztiz lotuta, Soroa Arquitectos SLPk 2022ko maiatzean sinatua".*

**VI.** Kontratua 2022/07/11ko datarekin sinatu zen.

**VII.** Zuinketa-akta 2022/07/25ean sinatu zen.

**VIII.** Urriaren 5eko 2022/281 Alkatetza Dekretuaren bidez, URBYCOLAN, S.L.-k aurkeztutako 2022-6842 faktura onartu zen, Asteasuko Pello Errota Ikastetxearen inguratzaile termikoa birgaitzeko lanen 1. ZIURTAGIRIAri

*Perfil de Contratante de Contratación Pública de Euskadi".*

**V.** Tras la publicación el 20/05/2022 del anuncio de licitación electrónica en el Perfil de Contratante de este Ayuntamiento, integrado en la Plataforma de Contratación Pública, y tras los trámites oportunos, el Pleno del Ayuntamiento, en sesión celebrada el 28/06/2022 adoptó, entre otros, los siguientes acuerdos:

*"PRIMERO. ADJUDICAR a URBYCOLAN, S.L. el contrato de rehabilitación de la envolvente térmica de Pello Errota Ikastetxea de Asteasu en las siguientes condiciones:*

- *Precio: 347.196,20€ de principal y 72.911,20€, correspondientes al 21% de IVA.*
- *Ampliación del plazo de garantía: 36 meses.*

*Todo ello conforme a la propuesta presentada, y con total sujeción al "Proyecto de Ejecución Rehabilitación de la envolvente térmica de Pello Errota ikastetxea de Asteasu", firmado por Soroa Arquitectos, S.L.P. en mayo de 2022".*

**VI.** El contrato fue formalizado el 7/11/2022.

**VII.** El acta de replanteo fue suscrita el 25/07/2022.

**VIII.** Mediante Decreto de Alcaldía 2022/281, de 5 de octubre, se aprobó la factura nº 2022-6842 presentada por URBYCOLAN, S.L., correspondiente a la 1ª CERTIFICACION de las obras de rehabilitación de la envolvente térmica de

SINA3df5e812-2d7b-448c-8f8c-bf7185f13683

dagokiona, kopurua 162.037,05 eurotakoa baita. Berau indarrean den aurrekontuetako 1 0700.622.320.00.01 kontusailetik ordaintzea.

Pello Errota Ikastetxea de Asteasu, cuyo importe asciende a la cantidad de 162.037,05 Euros, abonando la misma con cargo a la Partida 1 0700.622.320.00.01 del vigente Presupuesto.

Azaroaren 8ko 2022/317 Alkatetza Dekretuaren bidez, URBYCOLAN, S.L.-k aurkeztutako 2022-6875 faktura onartu zen, Asteasuko Pello Errota Ikastetxearen inguratzaile termikoa birgaitzeko lanen 2. ZIURTAGIRIAri dagokiona, kopurua 90.624,23 eurotakoa baita. Berau indarrean den aurrekontuetako 1 0700.622.320.00.01 kontusailetik ordaintzea.

Mediante Decreto de Alcaldía 2022/317, de 8 de noviembre, se aprobó la factura nº 2022-6875 presentada por URBYCOLAN, S.L., correspondiente a la 2ª CERTIFICACION de las obras de rehabilitación de la envolvente térmica de Pello Errota Ikastetxea de Asteasu, cuyo importe asciende a la cantidad de 90.624,23 Euros, abonando la misma con cargo a la Partida 1 0700.622.320.00.01 del vigente Presupuesto.

Azaroaren 17ko 2022/334 Alkatetza Dekretuaren bidez, URBYCOLAN, S.L.-k aurkeztutako 2022-6895 faktura onartu zen, Asteasuko Pello Errota Ikastetxearen inguratzaile termikoa birgaitzeko lanen 3. ZIURTAGIRIAri dagokiona, kopurua 133.371,69 eurotakoa baita. Berau indarrean den aurrekontuetako 1 0700.622.320.00.01 kontusailetik ordaintzea.

Mediante Decreto de Alcaldía 2022/334, de 17 de noviembre, se aprobó la factura nº 2022-6895 presentada por URBYCOLAN, S.L., correspondiente a la 3ª CERTIFICACION de las obras de rehabilitación de la envolvente térmica de Pello Errota Ikastetxea de Asteasu, cuyo importe asciende a la cantidad de 133.371,69 Euros, abonando la misma con cargo a la Partida 1 0700.622.320.00.01 del vigente Presupuesto.

**IX.** 2022/11/25ean Obra Zuzendaritza Fakultatiboak obra-amaiera ziurtagiria eman du; horren arabera, 345.956,76 eurokoa izan da gauzatze-aurrekontuaren likidazioa (292.120,11 euro gauzatze-materialari dagokio, gehi gastu orokorrak eta industria-onurak barne), gehi BEZari dagozkion 72.650,92 euro; guztira, 418.607,68 euroko gastua.

**IX.** Con fecha de 25/11/2022 la Dirección Facultativa de la Obra ha emitido certificado de fin de obra, ascendiendo la liquidación de la misma al importe de 345.956,76 euros de presupuesto de ejecución (292.120,11 euros de ejecución material, más gastos generales y beneficio industrial incluido), más 72.650,92 euros en concepto de IVA, resultando un total de gasto de 418.607,68 euros.

SINA3df5e812-2d7b-448c-8f8c-bf7185f13683

Likidazioaren kopuruaren arabera, eta 1 eta 3 zenbakia dituzten aurretik ordainduak izan diren ziurtagiriak murriztu ondoren, ondorioztatu da azken ordainketa egin behar dela, 26.921,24 eurokoa gauzatze-aurrekontuari dagokiona (gauzatze-materiala, gastu orokorrak eta industria-onurak barne), gehi BEZari dagozkion 5.653,46 euro; guztira, 32.574,70 euroko gastua.

Del importe de liquidación, deducidos los importes correspondientes a las certificaciones nº 1 a 3 que han sido previamente abonadas, se desprende la obligación de abonar el importe final de 26.921,24 euros de presupuesto de ejecución (ejecución material, gastos generales y beneficio industrial incluido), más 5.653,46 euros en concepto de IVA, resultando un total de gasto de 32.574,70 euros.

**X.** 2022/11/25ean obra-harreraren akta sinatu da; horretan jaso da Udalak obrak gogobeteta ulertu dituela.

**X.** Con fecha de 25/11/2022 se ha formalizado el acta de recepción de obras, que se han considerado a satisfacción del Ayuntamiento.

**XI.** Ikusirik, URBYCOLAN, S.L.k aurkeztutako 2022-6933 faktura, Asteasuko Pello Errota Ikastetxearen inguratzaile termikoa birgaitzeko lanen 4. ZIURTAGIRIA ETA LIKIDAZIOA-ri dagokiona, zenbatekoa 32.574,70 eurotakoa baita.

**XI.** Vista la factura n.º 2022-6933 presentada por URBYCOLAN, S.L., correspondiente a la 4ª CERTIFICACION Y LIQUIDACIÓN de las obras de rehabilitación de la envolvente térmica de Pello Errota Ikastetxea de Asteasu, cuyo importe asciende a la cantidad de 32.574,70 euros.

**XII.** Argudio hauek kontuan hartuta:

- Obrak jaso direla 2022/11/25ean, eta Udalak horiek gogobeteta ulertu dituela.
- Berme epea hogeita hamasei (36) hilabetekoa dela, 2022/11/25etik kontatzen hasita.
- Kontratistak kontratuaren esleipenari dagokien bermeak aurkeztu zituela.
- Aurkeztutako faktura, azken-ziurtagiriari dagokiona, bat datorrela gauzatutako obra-amaiera ziurtagiriarekin.

**XII.** Considerando los siguientes argumentos:

- Que el 25/11/2022 se han recibido las obras, y que se han considerado a satisfacción del Ayuntamiento.
- Que el plazo de garantía es de treinta y seis (36) meses, a contar desde el 25/11/2022.
- Que la contratista depositó las garantías correspondientes a la adjudicación del contrato.
- Que la factura presentada, que corresponde a la última certificación, es acorde al importe de la certificación final de las obras ejecutadas.

SINA3df5e812-2d7b-448c-8f8c-bf7185f13683

- Lizitazioaren ondoren esleitutako prezioa ez dela igo.

**XIII.** Azaroaren 8ko Sektore Publikoaren Kontratuen 9/2017 Legearen 243 artikuluak honela dio: *“Obrak hartu eta hiru hilabeteko epearen barruan, egindako obren azken ziurtagiria onetsi beharko du kontratazio-organoak, eta ordaindu egingo zaio kontratistari, kontratuaren likidazioaren kontura, lege honetan aurreikusitako epean. 8…) Obrak egoera onean badaude eta emandako aginduen arabera egin badira, administrazio kontratatzaileak bere ordezkari izendatutako funtzionario teknikariak hartutakotzat joko ditu; harrera-akta egingo da, eta orduan hasiko da berme-epea.(…) Berme-epea amaitu aurreko hamabost eguneko aldian, obra-zuzendari fakultatiboak, bere kabuz edo kontratistak halaxe eskatuta, txosten bat egingo du obren egoerari buruz. Txosten hori aldekoa bada, kontratista erantzukizun orotatik libre geratuko da, ondorengo artikuluan ezarritako salbuespenarekin; bermea itzuli edo ezereztu, kontratua likidatu, eta, hala badagokio, ordaindu gabeko betebeharrak ere ordainduko zaizkio, hirurogei eguneko epean. Txostena ez bada aldekoa, eta ikusitako akatsak obrak egitean agertu badira eta ez eraikitakoa erabiltzean, zuzendari fakultatiboak, berme-epeak dirauen bitartean, dagozkion jarraibideak emango dizkio kontratistari, eraikitakoa behar bezala konpon dezan; horretarako, epe bat jarriko dio, eta, epe horrek dirauen bitartean, kontratistak izango du obrak kontserbatzeko ardura, eta ez du eskubiderik izango berme-epea luzatzeagatik dirurik jasotzeko”*.

- Que no se ha incrementado el precio del contrato adjudicado tras la licitación.

**XIII.** De conformidad con lo dispuesto en el artículo 243 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público *“Dentro del plazo de tres meses contados a partir de la recepción, el órgano de contratación deberá aprobar la certificación final de las obras ejecutadas, que será abonada al contratista a cuenta de la liquidación del contrato en el plazo previsto en esta Ley. (…) Si se encuentran las obras en buen estado y con arreglo a las prescripciones previstas, el funcionario técnico designado por la Administración contratante y representante de esta, las dará por recibidas, levantándose la correspondiente acta y comenzando entonces el plazo de garantía. (…) Dentro del plazo de quince días anteriores al cumplimiento del plazo de garantía, el director facultativo de la obra, de oficio o a instancia del contratista, redactará un informe sobre el estado de las obras. Si este fuera favorable, el contratista quedará exonerado de toda responsabilidad, salvo lo dispuesto en el artículo siguiente, procediéndose a la devolución o cancelación de la garantía, a la liquidación del contrato y, en su caso, al pago de las obligaciones pendientes que deberá efectuarse en el plazo de sesenta días. En el caso de que el informe no fuera favorable y los defectos observados se debiesen a deficiencias en la ejecución de la obra y no al uso de lo construido, durante el plazo de garantía, el director facultativo procederá a dictar las oportunas instrucciones al contratista para la debida reparación de lo construido, concediéndole un plazo para ello durante el cual continuará encargado de la*

SINA3df5e812-2d7b-448c-8f8c-bf7185f13683

*conservación de las obras, sin derecho a percibir cantidad alguna por ampliación del plazo de garantía”.*

**XIV.** Asteasuko Udalak Erronka demografikoa duten udalerrietan energia garbiko tokiko proiektu berezietarako inbertsioak egiteko zuzeneko laguntzak ematea arautzen duen abuztuaren 3ko 692/2021 Errege Dekretuak arautzen duen prozeduraren parte hartzea eskatu du 2021/11/8an (DUS 5000 PROGRAMA), Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren Berroneratze eta Erronka Demografikorako Programaren esparruan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduaren bidez ezarritakoa, 2021eko otsailaren 12koa.

**XIV.** El Ayuntamiento de Asteasu ha solicitado el 8/11/2021 la participación en el procedimiento regulado por el Real Decreto 692/2021, de 3 de agosto, por el que se regula la concesión directa de ayudas para inversiones a proyectos singulares locales de energía limpia en municipios de reto demográfico (PROGRAMA DUS 5000), en el marco del Programa de Regeneración y Reto Demográfico del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, establecido por el Reglamento (UE) 2021/241 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 12 de febrero de 2021.

Era berean, 2022ko urtarrilaren 28ko Eusko Jaurlaritzako Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen ebazpenaren bidez, hezkuntza-administrazioaren menpeko ikastetxeek funtzionatzen duten udal jabetzako eraikinetan obrak egiteko eta karpak eskuratu eta instalatzeko gastuen finantzaketa onartu da (UDALAGUNTZA 2021), Asteasuko Udalari Pello Errota HLHI ikastetxearen inguratzaile termikoa birgaitzeko 190.634,20 euroko zenbatekoan.

Así mismo, mediante resolución de 28 de enero de 2022 del Vice consejero de Administración y Servicios de Gobierno Vasco, se ha aprobado la financiación de los costes de realización de las obras y obtención e instalación de carpas en los edificios de titularidad municipal explotados por los centros dependientes de la administración educativa (UDALAGUNTZA 2021), para la rehabilitación de la envolvente térmica del CEIP Pello Errota, en el importe de 190.634,20 euros.

Era berean, Asteasuko Udalak 2022/11/2an eskatu du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 28ko Aginduaren bidez araututako hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxeak dauden udal-jabetzako eraikinetan obrak egiteko gastuak finantzatzeko (Udalaguntza-

Así mismo, el Ayuntamiento de Asteasu ha solicitado el 2/11/2022 la participación en el procedimiento regulado mediante Orden de 28 de septiembre de 2022, del Consejero de Educación de Gobierno Vasco, por la que se convocan ayudas a la financiación de los gastos destinados para la ejecución de obras en edificios de propiedad municipal en los que funcionan

SINA3df5e812-2d7b-448c-8f8c-bf7185f13683

2022) laguntzak iragartzen diren prozeduran parte hartzea eskatu du.

centros docentes dependientes de la Administración educativa (Udalaguntza-2022).

**XV.** Bitarteko Idazkari Kontuhartzaileak aurretik txosten-proposamena eman du.

**XV.** Previo informe-propuesta del Secretario Interventor interino.

Ikusirik espedientean jasota dauden dokumentuak.

A la vista de la documentación que obra en el expediente.

Sektore Publikoaren Kontratuen 9/2017 Legean jasotakoarekin bat.

De conformidad con lo dispuesto en la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

La propuesta se somete a votación con el siguiente resultado:

Aldeko botuak: 7 (Legarra, Ayerza, Alkorta, Iturbe, Otegui, Gómez, Uribe-Etxebarria)
Kontrako botuak: 0
Abstentzioak: 0

Votos a favor: 7 (Legarra, Ayerza, Alkorta, Iturbe, Otegui, Gómez, Uribe-Etxebarria)
Votos en contra: 0
Abstenciones: 0

Gauzak horrela, Udalbatzak

Por todo cuanto antecede, el Pleno del Ayuntamiento

HAU ERABAKI DU

HA ACORDADO

LEHENA. Berrestea Asteasuko Pello Errota Ikastetxearen inguratzaile termikoa birgaitzeko 2022/11/25eko obra-harreraren akta, Udalak obrak gogobeteta ulertzen dituelarik; hala, Asteasuko Pello Errota Ikastetxearen inguratzaile termikoa birgaitzeko kontratuaren berme epea hogeita hamasei (36) hilabetekoa izango da, 2022/11/25etik kontatzen hasita.

PRIMERO. Ratificar el acta de recepción de obras de rehabilitación de la envolvente térmica de Pello Errota Ikastetxea de Asteasu, de fecha 25/11/2022, considerando las mismas ejecutadas a satisfacción del Ayuntamiento. En consecuencia, el plazo de garantía del contrato de rehabilitación de la envolvente térmica de Pello Errota Ikastetxea de Asteasu será de treinta y seis (36) meses, a contar desde el 25/11/2022.

BIGARRENA. Onartzea Asteasuko Pello Errota Ikastetxearen inguratzaile termikoa birgaitzeko Obra Zuzendaritza Fakultatiboak 2022/11/25ean eman duen

SEGUNDO. Aprobar la certificación final de las obras de rehabilitación de la envolvente térmica de Pello Errota Ikastetxea de Asteasu, emitida por la

SINA3df5e812-2d7b-448c-8f8c-bf7185f13683

obra-amaieraren ziurtagiria; horren arabera, 345.956,76 eurokoa izan da gauzatze-aurrekontuaren likidazioa (292.120,11 euro gauzatze-materialari dagokio, gehi gastu orokorrak eta industria-onurak barne), gehi BEZari dagozkion 72.650,92 euro; guztira, 418.607,68 euroko gastua.

Dirección Facultativa de la Obra con fecha 25/11/2022, ascendiendo la liquidación de la misma al importe de 345.956,76 euros de presupuesto de ejecución (292.120,11 euros de ejecución material, más gastos generales y beneficio industrial incluido), más 72.650,92 euros en concepto de IVA, resultando un total de gasto de 418.607,68 euros.

HIRUGARRENA. Onartzea URBYCOLAN, S.L.k aurkeztutako 2022-6933 faktura, Asteasuko Pello Errota Ikastetxearen inguratzaile termikoa birgaitzeko lanen 4. ZIURTAGIRIA ETA LIKIDAZIOA-ri dagokiona, zenbatekoa 32.574,70 eurotakoa baita. Berau indarrean den aurrekontuetako 1 0700.622.320.00.01 kontusailetik ordaintzea; ordainketa kontratuaren likidazioaren kontura egingo da.

TERCERO. Aprobar la factura n.º 2022-6933 presentada por URBYCOLAN, S.L., correspondiente a la 4ª CERTIFICACION Y LIQUIDACIÓN de las obras de rehabilitación de la envolvente térmica de Pello Errota Ikastetxea de Asteasu, cuyo importe asciende a la cantidad de 32.574,70 euros, abonando la misma con cargo a la Partida 1 0700.622.320.00.01 del vigente Presupuesto; el abono será a cuenta de la liquidación del contrato.

LAUGARRENA. Ebazpen honen berri ematea interesdunei.

CUARTO. Notificar la presente resolución a los interesados.

BOSGARRENA. Dagokion iragarkia argitaratzea Euskadiko Kontratuen Erregistroan (REVASCON).

QUINTO. Publicar el correspondiente anuncio en el Registro Vasco de Contratos (REVASCON).

<u>**LAUGARREN PUNTUA**</u>

**Erregu eta galderak.**

Gómez jaunak hitza hartu du. Etxez-etxeko laguntza zerbitzuaren lizitazioaren egoerari buruzko galdera egin du.

Alkate andreak hitza hartu du. Atzo, hilaren 17an, amaitu zen proposamenak aurkezteko epea. Eskaintzak aurkezteko epea amaitu ondoren Euskadiko kontratazio plataformaren bidez eskaintza aurkeztu duten enpresak honako hauek izan dira: ELKARLAGUN ABEE eta EULEN SERVICIOS SOCIOSANITARIOS, S.A. Gaur bertan, kontratazio mahaia eratu da, eta “A” artxibo elektronikoan aurkeztutako Administrazio-dokumentazioa

SINA3df5e812-2d7b-448c-8f8c-bf7185f13683

aztertuta, mahaiak erabaki du aipatu bi enpresa lizitatzaileak GAI kalifikazioa lortu dute. Segidan, goizean bertan bigarren aldiz elkartu da Kontratazio-mahaia, eta B» artxibo elektronikoak ireki eta aztertu dira, balio-iritzi baten arabera haztatzekoak diren irizpideak biltzen dituzte artxibo horiek. Kontratazio-mahaiak dokumentazioa Udaleko Gizarte Langileari bidaltzea erabaki du, ezarritako irizpideak kontuan hartuta azter dezaten eta dagokion txostena egin dezan. Aurreikusi da Gizarte Langileak gutxi gora behera aste oso bat behar izango duela txostena egiteko; ondoren, kontratazio-mahaia deituko da izapideekin jarraitzeko.

Eta beste gairik ez dagoenez, Alkate andreak bilera amaitutzat ematen du arratsaldeko 20:35 orduak direnean, nik Idazkariak, bertan jasotakoaren akta hau luzatzen dudalarik.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, Alkate andreak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 20:35 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut. Bitarteko Idazkariak.

Asteasun, 2023ko urtarrilaren 18an.

Bitarteko Idazkariak

Jon Gil Beltza



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **SINA3df5e812-2d7b-448c-8f8c-bf7185f13683**
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01410***
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01410***

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| | |
|---|---|
| **Titulua / Título:** | Udalbatzarreko akta 2023.01.18 |
| **CSV/EKS:** | SINA3df5e812-2d7b-448c-8f8c-bf7185f13683 |

Sinatzailea 1 / Firmante 1: JON GIL BELTZA - 44138948Q
Data / Fecha: 2023/01/19 13:44:32